

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gaur egun, dena teknologiaren eraginpean dago eta ondorioz, enpresa asko dira bere bezeroekin komunikazioa gailu elektronikoaren bidez gauzatzen dituztenak. Gure bezeroekiko harreman estua eta konfiantzazkoa izatea du xede gure enpresak. Gure aburuz, bezeroek gure enpresak esponentziaki hasteko eta honen izena internazionalki ezagutarazteko faktore garrantzitsuenetakoa da, ez bada garrantzitsuena. Bezeroak pozik baldin badaude eta enpresaren lan egiteko moduarekin ados baldin badaude, bezeroen leialtasuna lortu dezakegu.

Erreserba egiterako garaian, erreserba egin nahi duen ororentzat oso erraza izango da gurekin kontaktuan jartzea. Zati batean, gure enpresak teknologia izango du tresna bezeroekin kontaktuan jartzeko gure app (aplikazioaren bidez). Honek, alde batetik, gure sede edo ofizinara joatea saihestu die eta honekin batera, ofizinara ez joatea ahalbidetuko die. Aplikazioaren bidez, beraien bidaiak gure esku utziko dituzte “ klik “ bat eginez. Bezeroak, bisitatu nahi duen herrialdea aukeratu eta bere izaera eta gustuen araberako formulario motzak betetzea izango da beraien egin behar bakarra. Gure enpresak, formulario hauen bidez jasotako datu edo informazio guztia pilatu eta bezeroari ondo egokituko zaion ofertaren azterketa eta hautaketa egingo du.

Bidaian egon ahala, gure enpresarekin kontaktuan jartzeko aukera dago. 12 orduz, gure ofizinak zabalik daude, beraz, edozein arazo delarik bezeroek guri deitzeko eta ezusteko arazoak konpontzen lagundu dezakegu.

